

## **GERTRUDISEN 16 REIHLER-OTTOPLATZ**

### **S TRANBIA**

Urtzi Urrutikoetxea

*Bilbao. 17 urte*

Ateetatik irteteanapur bat gehiago estutu du Gertrudisek beroki zaharra eta farolapeko bero finean lurrunkada bota ostean, artez zuzendu da espaloian zehar geltokirantz. Edurra atertu arren leia gogor-gogor datza zoluaren gainean. Guztiz neketsua da goizaldean hirian zehar ibiltzea baina Gertrudisek 05.14etako 16 Riehler-Ottoplatz S tranbia ezin du galdu. Itxaron eginen lioke gidariak, noizbait berandutuko balitzaio. Egunero sinkroniaz ailegaten dira biak geltokira. Gertrudisek hirugarren zuhaitz biluztua gurutzatzean, trenbideetako hots asagoa entzuten du, beti, eta badaki pausua oraindik gehiago arindu behar duela, baldin eta galduko ez badu. Ausaz, gorputza bero gordetzeko era bakarra da, hotza ikaragarrikoa izaten baita ordu horietan, eta gaitzerdi gaurkoan elurrik egiten ez duen, ze pausu arina eroan eta golkotik edurra sartzea labankada garratz bat suertatzen da eta. Eta Gertrudisek ez dauka elurra sar ez dakion berokirik erosteko lain.

Kontuz, bizkorrago ibiltzeari ekiten dio asfalto elurtutik datorren tranbiaren ziztua agertzean,

oraindik ere lehengo bateko labanketaren ubel-  
durak ez baitzaizkio desagertu, ez ipurdi, ez lepo-  
tik. Ordu horietan zuhaitzei sarri edurrezko jan-  
tzia jausten zaie, pisu lar dutelako, eta euren  
inguruan ez ibiltzen saiatu behar da, bestela mela-  
mela utz zaitzakete eta tranbia galdu, baina faro-  
len argipetik joateko era bakarra da. Etxe batetik  
ere ez da argirik ageri, eta farolena nahiko ez den  
arren, elurrari begiratuta ere geltokira ailegatzea  
lortzen du Gertrudisek behin ere bista altxatu ba-  
rik. Sama ondo estaltzeko ere, bufanda berria lor-  
tu artean horrela ibili behar da.

Argia nondik datorkion sekula asmatu ez duen  
geltokiaren barnekaldea bitxia da; hotza geltokiaz  
kanpoko berbera da, noski; behekaldeetik sartzen  
zaion haizea krudela da. Eguzkiak zeozer bero-  
tzen duenean, elurrerako babesa da tranbia dato-  
rren bitartean, zeren goizaldeko orduotan izoztu-  
ta bertan gelditzeko aukerak baitaude. Geltokia  
baino doi bat aurrerago lotu da gaurkoan tranbia,  
agurtzen duen Santa Claus baten iragarkia guru-  
tzatuta duela. Astiro abiatzen da barrurantz Ger-  
trudis. Gidariaren gaueroko marmarrak ezpain  
artean galtzen zaizkio, atea zabaltzen duen bakoit-  
zean eztarrirako karamelu bat hartu behar duela-  
ko. Ia Gertrudis barrurantz bultzatuz ixten du, os-  
tera ere, atea, baina itxaron egingo dio bonoa sar-  
tu eta jezarri bitartean. Gaueko ezezagun hauen  
artean dagoen konplizitatea oso berezia da. Bada-

kite ez diotela elkarri berbarik gurutzatuko eta beti indiferentzia erdi iraingarri batekin egiten dute so, baina hala eta guztiz elkartasun komun bat banatzen dute.

Gertrudis tranbiara igotzean, bero itogarria sentitzen du kanpoko giroaren aldean; botoiak askatuta oso gustora egonarazten duen beroa. Hala ere berokia zabaldu eta bufanda askatzen du, eta 98.5 emisoraren leloaz, ikasi duenaz ohartzen da, gauero bostak eta laurdenetan ipintzen baitu gidariak, hiriko errepideen berriak entzuteko. Honi begiratzeke, hamar bidaiatako S-Bahn bonoa sartzeko kutxatilara parajetzen da, eta, sama libre, lehenengo aldiz burua altxatzen du barrukaldea miatzeko.

Aurrez aurre, ile kirru horailezko andrea dauka. Gaztaroan emakume ederra izango zen, baina urteek gogor ekin dute bere aurka. Berokia alboke jazarlekuan daroalarik, jertsetik bere gorputzeko eite biribilduak igartzen zaizkio, masailetaraino igotzen zaion biribiltasun bat. Tximurrak behar baino lehenago ailegatu zaizkiola dirudi, eta begirada nekatu batez egiten dio so Gertrudis espilu aurrean bailegoan. Hala ere, jezartzeko dotoreziak eta gorputzaren banaketa orekatuak, behialako figura apaina erakusten du, eta zeinen ariar liraina izan zen diosku.

Gauean zehar abiatzen da tranbia eta Gertrudisek bere aulkirako bideari ekiten dio, erreserbatu-

ta baleuka lez, han, eskumako laugarren lerroan, leiho ondoan.

Gurutzatzen du turkiar itxurako emakume gaztea, egunero moduan sein lokartuarekin doana, ezkerreko aldean. Kantu leun bat darabil ahotan, eta bere ahots gozoa apur bat gehiago jaisten du, Gertrudis pasatu eta jazarri artean, errespetu kontu bat bailitzan edo.

Eta gurutzatzen du baita ere leihoan ipinitako bufandaren kontra lo doan agurea. Bere azalak urteen sufrimendua islatzen du, zeharo erreta daroa, eta adats urdinduek noizbait azalak kolore hori izango zuela sumatzen dute, ileok ditzira gehiago zutenean. Tranbiaren martxan ipintzeko kolpeak itzartu egiten du, eta begi berde izukor batzuek artez so egiten diote Gertrudisi, nahiz eta atoan jiratu eta lo hartzeko jarrera berri bat bilatzen saiatu.

Ursulastrasse eta Maximin-strasse izkina zeharkatzean, aulkian jausten uzten du bere burua eta arrotz batez ohartzen da. Hirugarren lerroan doa eta leihoko lurruna kentzen dabilelako daki, ez dela gauero tranbia koiuten duenatariko bat. Barruko kalefakzioak leiho guztiak lurrunez estaltzean, ezin dute neguko gauzen xarma gozatu.

Alde zaharra inguratzen dutelarik, lo dago hiri osoa eta Gertrudis-ek ez du hirugarren aldiz aurreko arrotzarengan erreparatzen. Honek, aldiz, liluratuta miresten du zuriz jantzi den katedrala

eta atean gora elurra doakion Museo Erromatar-Germaniarra. Zera esaten dute hiritarrek, katedrala eurekin esposatzeko jantzen dela zuriz, benetan maite duten hiritarrekin, ez denean turistarik arean, baina gaueko bidaiari hauek ttikitandiko elezahar hauen ideia xume bat bakarrik gordetzen dute.

Adibidez, behin ere ez die erreparatu aliatu amerikarren bonbardaketetako argazkiei. Arrotzak lotu dadila eskatzen dio gidariari eta ondo estutzen ditu jantzi garestiak gorputzaren kontra. Leihoko lurrunik galtzen dute gaueko bidaia-riek, honen ezinegona katedrale aurreko argazkietarantz zuzentzen denean, bakearen aldeko esaldien muralean bere garaua ipini guran.

Geltoki hau ezohikoa da. Ezen ordu hauetan, egunero doazen laurenetan soilik lotzen da eta. Heinrich-Böll-Platz zeharkatzean oinezkoen alderdia garbitzen dabilzan udaletxeko kamioien zarata entzuten da, turistarik baletor beti bezain garbi topa dezan katedrale ingurua. Bestaldean erreka ibilaldi turistikoetarako baporeak daude, hazaroko lehen egunetatik martxan ipini gabe, baina hor daude, leia kaskoan zehar igotzen zaielarik, ibai handia, izoztuta edo ez, bertan da goela konfirmatzen bezala.

Deutzer Zubiraino joan behar dute, Hohenzollernbrücke trenentzat delako soilik. Erreka gainetik iragatean ere ez diote leihotik begirada ti-

kiena eskeintzen, jadanik hirurehun metrotako zabalera duen Rhin-ari. Haatik, egunero ibiltzeak kendu ezin dion zirrara berezia sentitzen du, hutsaren gainetik ibiltzeak sortzen duen zirrara, hala deitzerik bada. Beste guztiek gauza bera sentitzen dutela iruditzen zaio Gertrudisi baina inork ez du ardura konpartitzeko gogorik. Turkiar itxurako emakumeari igartzen zaio batik bat zubia zeharkatzeko nahia, bere seinak Rhin izoztua sekula senti ez dezan.

Eta hiria horren harro zeharkatzen duen erre-karen zabalerako hirurehun metroak betetzear, elurra hasten da ostera ere, baina Gertrudis baino ez da ohartzen, guardasolik ez daroalako eta laster jaitsi behar duelako. Beharbada, gaur untziek ezingo dute iparralderantz egin, eta kotxeak hirian sartzen uzten badituzte, bat baino gehiago berandu ailegatuko da lanera zein etxera, oldozten du Gertrudisek tranbia semaforo baten lotu dela konturatzean.

Leihoko lurrunaren hotza masailean sentituta, jaiki egiten da berriro ere ondo janzteko. Arminiusstrasse-ko 28 estazioan tranbiatik jaisteko botoiari sakatzen dio, gidaria zain zegokeela pentsatuz, eta apurka-apurka abiadura gutxitzen doa, harik eta Arminiusstrasse-ko geltokiko kartelean—ez baitago markesinarik— lotu eta ateak zabaldu arte.

Astiro doa behera Gertrudis, hotzak barrukoak zenbat haserrerazten dituen badaki ere. Eskularruak janzten hasten da, lepoa emanez tranbiari, baina ordurako zarratu dituzte ateak, eta urtzen duen leia berokian zipriztinduz iparralderantz elurtzan zehar galtzen da 16 Riehler-Ottoplatz S tranbia.

Eta biharamunean ere 16 Riehler-Ottoplatz S tranbia koiuko duela jakin arren, beti lotzen da, berandu, gal dezakeenaren zalantza itogarria.